



IZASKUN AZURMENDI ▶ EKUADORREN MISIOLARI

«Konturatu naiz gauza gutxirekin oso zoriontsu izan zaitezkeela»

IBARRA ▶ 15 hilabete igaro ditu Ekuadorko kostako zatiko Baba hirian, misiolari bezala

PROIEKTUAK ▶ «Formakuntzaz baliatu gara egoera hobetu eta garapena lortzeko» dio ▶ 6



Izaskun Azurmendi misiolaria. M. SOROA



HITZA

Emakumeen aurkako indarkeriaz gogoeta

TOLOSA ▶ 70 horma-irudiz osaturiko 'Emakumeen aurkako indarkeriari ez' erakusketa dago ikusgai Aranburun ▶ 4

ZIZURKIL ▶

Arau subsidiaroei eginiko alegazioen ia erdiak sartu dituzte

10 proposamen onartu dituzte Aurrerapenaren hasierako fasean ▶ 2

ARESO ▶

Hitzartutako epean, obrak amaituta

Elutsederrekoekin ez dira oraindik hasi ▶ 7

TOLOSA ▶

Udalak San Juan kaleko pabilioi industrialak erosi du

Alondegian eraikiko dituzten 500 aparkalekuen sartu-irtena errazteko ▶ 3

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

Arau subsidiarioei egindako alegazioen ia erdiak sartu dituzte

Guztira hogeitabi proposamen aurkeztu dituzte; horietatik hamar onartu dituzte aurrerapenaren hasierako fasean

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak Planeamenduzko Arau Subsidiarioen aurrerapen agiriari aurkezturiko 22 alegazioak aztertu ditu eta hauetatik 10 kontuan hartzea erabaki du, izan ere, «egiten dituzten ekarpenak interesgarriak izan daitezke herriko etorkizunerako ikuspuntu global batentzat». Udalak bidalitako prentsa oharrak azaltzen duenez. Aipaturiko alegazioak haserako onarpenerako idatzian jasoko dira.

Bi hilabetetan jendaurrean erakusgai izan ostean, Udalak «erantzun ona» jaso du Zizurkilgo bizilagunen eskutik, «prozesuan zehar aktiboki parte hartu baitute». Jaso dituzten proposamen guztiak kontuan izanik, agiri osoari objektio globalik ez egin izana nabarmentzen da, izan ere, gehiengoak alderdi oso zehatzetan oinarritzen baitira, batez ere hirigintzari dagozkion gaietan.

«Zehaztasun handikoak»

Kasu askotan, jendaurrean aurkeztu den agiriaren behin-behineko izaera dela kontuan izanik, «gehiegizkoa izan da zehaztasun maila». Aitzitik, ondorengo faseetan sartuko litzateke. Aurrerapena zehaztasun gehiagoz garatzen denerako hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, Udalak «esker onez hartzen ditu ekarpen hauek, aurrerago landuko diren gaiak

Herri partaidetzan eredu

Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea jasagarritasun politikaren ikuspegi sozialaren inguruko mintegi batean parte hartzea gonbidatu dute Bilbon biltzen diren jatorri ezberdineko adituen artera. Atzoko hitzaldian, Ugare auzoko berritze proiektua zehazteko Udalak ezarritako herri partaidetza ereduaz azaldu zuten.

Mintegia, EHUko Soziologia 1eko Departamentuak, Bakeaz Bakearen Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eta Soziologia eta Politika Zientzieta Euskal Elkarteak antola-

tua, herri partaidetza sustatzu, udal gaien kudeaketarekin zerikusia duten alderdi ezberdinen azterketan oinarritzen da. Eremu honetan, Zizurkil, herriko bizilagunen lankidetzari dagokionez eredu bezala aurkezten da Ugareko esperientziarengatik.

Ez da lehen aldiz, Zizurkil, udal bizitzarekin zerikusia duten galetan herri partaidetzari dagokionez erreferente gisa hartzen denekoa. Pasa den urtean, Lazkanok Bakeazek eta Eusko Jaurilaritzak antolatutako jardunaldi batean parte-hartu baitzuen.

argitzen eta zehazten baitituzte».

Bizilagunek bideratu dituzten erantzunen ezaugarriak nagusiena, hirigintza garapenera dagozkion gaien inguruko ardura izan da, bizitegi-guneei dagozkiena nahiz gune industrialen ingurukoa. Izan ere, ingurugiro politika, ekipamenduen hazkundea edo mugikortasuna errazteko neurrien inguruko gaiek babes osoa jaso dute. Bestalde, proposatu diren hiri-garapen berriak ez direla eztabaidatuak izan nabarmentzen du Udalak. Honek, antolamenduari dagokionez jaso duten aukera bakarra ezingo da kontuan hartu, egungo Lurzoru Legearekin bat ez baitator.

Osoko bileran, Udalbatzak agiria berretsi beharko du, eta hemendik aurrera, Arau Subsidiarioen haserako onarpen agiria gauzatzeko hasi ahal izango da. Ondoren, berriz ere, jendaurrean jarriko da herritarrek agiria ikusi dezaten eta honela, beharrezkoa baderitzote, alegazio egokiak aurkeztu ahal izango dituzte, azkenik, azkeneko idatzian sartuko diren edo ez erabakitzeke aztertuak izan daitezke. Udalbatzak behin-behineko agiria onartzen duenean, Gipuzkoako Foru Aldundira eramango da, izan ere, erakunde honek bere oniritzia ematen duenean hasiko baitira Zizurkilgo Planeamenduzko Arau Subsidiarioak betetzen.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna baterako. 07:00etatik 13:30ak arte. Igandeak jai. 650 48 79 34.
Tabernaria. Pertsona bat behar da Tolosako taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira.
Elektrikaria. Elektrikari bat behar da Villabona inguruan, industrian lan egiteko. 629 53 40 50.
Gidaria. Egurretan ibiltzeko gidaria behar da. 626 71 46 96.

Banatzaila. Baserriko produktuak banatzeko banatzaile bat behar da. 943 68 22 14.
Kitarrajolea. Erromeri talde batek kitarrajolea behar du. 665 70 17 75.

SALGAI

Autoa. BMW M3 autoa salgai. Urdin kolorekoa, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Espainiako Gerra Zibila. Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat laguni egin zaie HITZAN elkarrizketak Espainiako Gerra Zibilar buruz. Horiek guztiak irakurgai daude webguneko atal berezi batean. Horrez gain, hainbat ataletan irakurleak bere iritzia eman dezake: inkestak, eztabaidak, albisteak inguruko iritziaz...

ANOETA ▶ MUSIKA



Keike musika taldea bost kidek osatzen dute. HITZA

Keike eta Cohen taldeen kontzertuak Gaztetxean

ERREDAKZIOA

Keike eta Cohen musika taldeek kontzertua emango dute bihar, Anoetako Gaztetxean, 23:00etan. Keike taldea 2002ko udan jarri zen abian Ondarroan (Bizkaia). Boskoteak urte bereko negu hasieran bost abestiz osatutako maketa bat grabatu zuen, Txus Lozano soinu-teknikariarekin. Keike taldearen musika definitzea ez da batere samurra. Rock ziztatzaile eta indartsua eskaintzen du. Gitarren pisua garrantzitsua da, baina Keike taldeak bi kontraste nagusi ditu. Alde batetik, Nerea abeslariak erabiltzen dituen ahotzaren bi kontzeptuak, batzuetan garratz eta zorrotz, bestetan goxo eta leun. Eta bestetik, musika eta ahotzaren arteko

kontrastea; Keike taldearen rockak bi aldeen oreka oso ongi zaintzen du, hori baita euren ezaugarririk definitzaileena. Keike taldearen rocka bere indarrean samurki egokitzen da belarrietan eta samurtasun horrek Keike indartu egiten du.

Cohen taldea ez da hain ezaguna euskal musikagintzan. Ruben Ramos (ahotsa eta gitara), Beñat Ayensa (gitara eta koroak), Joseba Bernardo (baxua eta koroak) urrietarrak biltzen hasi ziren musika egiteko asmoz. Ondoren Alvaro Jimenez baterajole donostiarra bilatu eta orain dela urte bat baino gutxiago Cohen sortu zuten. Taldeak bere lehenengo maketa grabatu du eta kontzertuak ematen ari da.



Cohen musika taldeko kideak. HITZA

ANOETA ▶

Outlook Express gaurko KZguneko mintegian

Tutorearen bisita izango dute gaur Anoetako KZgunean, 16:00etatik 20:00etara. *Komunikatu posta elektronikoa bidez: Outlook Express mintegia emango du 17:00etatik 19:00etara.*

ANOETA ▶

'Tempo di Martxa' autobusa herriko plazan

Euskadiko Orkestrak antolatutako *Tempo di Martxa* autobusa Anoetako plazan egongo da gaur, 17:30ean, Loatzoko musika eskolako ikasleentzat. Loatzoko musika eskolak berak bultzatu du ekimena.

HIRIGINTZA ▶

Aparkaleku berriei begira Udalak Mujika Egurrak zena erosi du

Alondegian inguruan eraikiko dituzten 500 aparkalekuetarako sartu-irtena errazteko erosi du Udalak eraikin zaharra



Inguru hauetan eraikiko dira Gerontologiko berria, eta 500 aparkalekuak. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Akordio berezi bat sinatu du Tolosako Udalak San Juan kaleko pabilioi industialaren jabeekin. Gerontologiko berriaren proiektuarekin lotuaz eta Alondegian emango diren beste berrikuntzen harira, Mujika Egurrak kokatua zegoen pabilioia erosi du Udalak.

Jokin Bildarratz alkateak azaldu duenaren arabera, «500 aparkaleku berri egin behar direnez Alondegiko lurretan, komunikabideak oso garbi izan behar dira, hala, sartu-irteerak errazteko botako da eraikin hau».

Beheko solairuak 800 metro karratu neurtzen ditu. Hormen erdialderaino harriz egina dago, eta gainontzekoa adre-

luzkoa da. Behe oinaren zati txiki baten gainean beste solairu bat dago, eta hau egurra gordetzeko erabiltzen da. Egun, pabilioia bere horretan dago, eta ez da erabiltzen.

Duela hiru urte hasi zen Udalaren ideia honi bueltak ematen, baina denbora asko behar izan da tramitazioa aurrera eraman ahal izateko. Azkenik, joan den urteko abenduaren 27ko osoko bilkuran hartu zuten erabakia.

Mujika Egurrak-en pabilioi zaharraz gain, ur eta argi kontsorzioaren eraikina zena ere botako dute Gerontologiko berria eraiki ahal izateko. Dena den, oraindik erabakitzeke dago nork edo zein enpresak egingo dituen eraikuntza lan hauek. Otsailaren 22ra arte

aurkeztu ahal izango dituzte enpresa ezberdinek beraien proiektuak, eta Udalak horietako bati esleitu dio eraikitze-ko aukera.

Alkatearen esanetan, Gerontologikoarengatik baino, 500 aparkalekuengatik erabaki dute San Juan kaleko pabilioia erostea. 500 horietatik, erdiak txandakatuz joango dira, eta gainontzeko 250ak, 50 urtetarako hartu ahal izango dira, 18.000 euro inguru ordainduz gero.

Zentro Gerontologiko berria, joan den maiatzean agertu bezala, egungo Alondegian eraikiko litzateke, egoitzak 128 laguntzako tokia izango luke, eguneko zentroak 60rentzako eta apartamentu tutelatuak beste 20rentzat.

GUTUN@K ▶

Sansebastianak Azpeitian

Urtarrilaren 13a Azpeitiko herriarentzat ikaragarria izan zen. Alde batetik, herritarrek eskaini ziguten parte-hartzeagatik; eta bestetik, hainbat herritarrek etorritakoek garbi erakutsi zigutelako ez dugula arazorik denon artean eginiko festa bikain bat gauzatzeko.

Udalaren izenean hori guztia eskertu egin nahi dugu. Izan ere, ez dakit berriro inoiz lortuko al dugun horrenbeste herri, agintari, danbor jotzaile, musikari, abeslari... elkartzea. Horrelako ekimen batek buru hauste asko ekartzen ditu, baina ezin dugu kezarik adierazi, Udaleko teknikariaren, udaltzainen, Udaleko beste hainbat langileren eta hainbat

herritarren laguntzagatik izan ez balitz, ezinezkoa bailitzateke horrelako gauzak antolatzeara.

Ekitaldira etorri zineten herri guztien aurrean txapela kentzen dugu. Izan ere, larunbatean izan zenuten jarrera eta umorea bikaina izan zen. Joaterakoan, eskerrak eman zenizkiguten gonbidatzeagatik; eskerrak asko bai, baina zuei, etortzeagatik.

Eskerrak beraz Azpeitiko danborradaren 50. urteurreneko ospakizunetan parte hartu duzuen eta hartuko duzuen guztioi.

AITOR GORROTXATEGI AZPEITIKO
UDALEKO KULTURA
BATZORDEBURUAK ETA MIKEL
IBARTZABAL AZPEITIKO UDALEKO
FESTA BATZORDEBURUAK, AZPEITIKO
UDALAREN IZENEAN ▶ AZPEITIA

GARRAIOBIDEAK ▶

Tren zerbitzu gehiago San Sebastianetarako

Gaur eta biharko aldiriko tren gehiago jarri ditu Renfek Donostiara joan ahal izateko

ESTI EZEIZA

San Sebastian eguna dela eta Renfek aldiriko tren gehiago antolatu ditu bihar eta etzira-ko. Honekin, Gipuzkoako aldiriko trenen eremuan dauden inguruko herrietako bidaiariak Donostiara erraztasunez bertaratzea nahi lortu nahi dute. Beraz, gaur eta bihar, ostiral eta larunbatetako ohiko trenez gain, beste batzuk ere jarriko ditu Renfek. Hala, Donostiako danborradara, San Sebastian eguneko ekitaldi nagusira modu erosoan joan ahal izango da jendea.

Festa bihar hasiko da, gauerdiko hamabietan, bandera jasotzen dutenean. Hala, egun horretan, Tolosa-Irun

ibilbidean tren bat gehiago igaroko da, 22:29an. Ohikoa lau minutu beranduago aterako da. Bestalde, festa egun bat beranduago, bandera jaisten dutenean bukatuko da. Hau 00:00etan izango da. Hori dela eta, Tolosa-Irun ibilbidean hiru tren gehiago igaroko dira. Alde batetik 10:19an eta 11:04ean, haur danborradara joateko, eta bestetik, 22:29an. Hau dela eta, ohiko trenak lau minutu beranduago aterako dira. Halaber, Tolosatik Donostiara beste tren berezi bat aterako da 22:15ean.

Gaur egun, Donostiako Aldiriko trenak egunean 24.800 bidaiarik erabiltzen dituzte, horren harira, Gipuzkoako eremuan 82 tren ibiltzen dira.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekoahitza.info

hilberria ▶

Maite Arizaga Errazkin

*Izan zirelako, gara
garelako izango dira
ez agurrik, ez adiorik*

Langaitz Ikastola

ERRENTERIAN, 2007ko urtarrilaren 18a

ERAKUSKETA ▶



Pepe Quintas-ek eginikoa da hau.



Jose Artiedaren horma-irudia.



Manuel Fernandez-en horma-irudia.



Forma/04-ren lana.



Ruben Egidoren eta Villuendas + Gomez Disseny-ren lanak.

Emakumeen aurkako indarkeriaz gogoeta horma-irudien bidez

70 irudiz osaturiko 'Emakumeen aurkako indarkeriari ez' erakusketa otsailaren 24ra arte izango da ikusgai Aranburun

ERREDAKZIOA

Espainiako diseinugile eta bulego grafiko onenen 70 horma-irudik osatzen dute *Emakumeen aurkako indarkeriari ez* erakusketa, gaurtik otsailaren 24ra arte Aranburu jauregian ikusgai izango dena, alegia. «Hirurogeita hamar begi-kolpe

dira, hirurogeita hamar sorkuntza argudio, konponbide hain zailekoa den giza oldarkortasunaren aurka, ekarpen argi bat genero biolentziaren fenomenoari buruz gogoeta egiteko; diseinu grafikoak, guztioi dagokigun kausa baten alde». Horrela definitzen dute antolatzaileek erakusketa.

Emakumeen aurkako indarkeriari ez erakusketa 2004ko Motiva-n (Oviedoko Arte Eskolako Diseinu Grafikoko Departamentuak antolatzen du eta diseinu munduko hainbat jardueri ematen zaien izen orokorra da) sortu zen. Markesinek eduki ohi dituzten iragarki euskarrietan hiri-erakusketak egiten dituzte eta Motivaren programazioko ekimenen artean hori izan da, hain zuzen, hasieratik bertatik oihartzun handienetakoa izan duena.

Edizio bakoitzerako proposatzen dituzten gaien berezko interesgarritasunaz gain, hiri-erakusketa horien berezitasu-

na da diseinugileak aukera duela libreki jokatzeko, adierazpen mugarik gabe. Baldintza horietan, hau da, enkargu jakinik gabe (enkarguak mugak jartzen dizkio sormenari eta artegintzaren bideak ixten ditu), diseinugile grafikoak diseinugile izaera galdu ahal du, adierazpen modutzat diseinu grafikoaz baliatzen den *artista* bihurtzeko.

Modu horretan lortutako emaitzak ez dira oso sailkagarriak: ez dira diseinuaren alorrekoak, jarduera horri dagozkion baldintzak ez dituztelako betetzen, baina ezta obra anizdunak ere, egile bakoitzaren ale bakarra inprimatzen delako. Benetako artelanarekin mugarririk egiten dute, baina autoenkarguak izenekoetatik ere oso gertu daude.

Motivak urtero antolatu dituen jardunaldietan 100 diseinugilek baino gehiagok hartu du parte hiriko erakusketa horietan, kasu batzuetan diseinu grafikoaren azken aldiko historiako pertsona ospetsuak omentzeko (Daniel Gil, Ricard Giralt Miracle edo Joan Brossa,

esaterako), beste batzuetan «kezkatzen gaituzten gaiel buruzko beren ikuspegia azaltzeko».

Markesinetako horma-irudiak Motivaren aitzakiaz bakarrik erakusten ziren, nahiz eta argitalpen profesionaletan edo aldizkarietan azaletan ere inoiz agertu diren eta zenbait horma-irudik diseinuko hainbat sari nagusi irabazi dituzten. Hala, beraien ohiko jokalekutik atera ziren lehen aldiz 2003an, Okupgrafi esker, Iruñako Zita-delan eginiko agerpen batean. Ekimenak «oso harrera ona» izan zuen eta, 2004az geroztik, horma-irudion edizio berezia egiten dute erakustokietarako. Okupgraf da Euskal Herriko ibilbideaz arduratzen dena, eta erakusketa asko egin dituzte, Aranburu Jauregikoaz gain.

Ekimen honetan partaidea izan nahi izan duten sortzaile ezagunenetako batzuk aipatzearen, hori dira, besteak beste, Alberto Corazon, America Sanchez, Cruz Novillo, Hugueta, Isidro Ferrer, Jorge Lorenzo edo Ricardo Morales, erakusketaren zuzendaria.

Beti Alai
jatekoa

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

PILOTA ▶

Eskualdeetakoak IV. Berria Pilota Txapelketan ari dira

Aurrera bigarren kanporaketan da eta Zazpi-Iturrikoek etzi jokatu dute lehena

NEREA URBIZU

Joan den asteburuan Leitzako Aurrera pilota eskola IV. Berria Pilota Txapelketan hasi zen, eta ongi hasi gainera, irabazi egin baitzuen Usurbilgoen kontra. Beraz, bigarren kanporaketan izango dira leitzarrak.

Iaz bezala Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri pilota eskolak ere ariko dira jokatzeko. Aste honetan Zazpi-Iturri pilota eskola amezketarraren txanda izango da eta lehenengo neurketa Gernikako Arkupe eskolaren aurka daukate 17:00etan. Al-tzan jokatu dituzte Berria Txapelketako binakako partida guztiak, baina «eskualdera ekartzeko aukera izango da», Luis Galarraga Aurrera-Saiaz pilota eskolako ordezkariek esan duenez. Beraz, partidaren bat edo beste gure eskualdeetan ikusi ahal izango da, pilota eskolek partida erosituz gero.

Aurrera-Saiazekoen otsailaren 4an izango dute lehenengo partida, eta Galarragaren hitzetan, «eskualdeko herriren

batean jokatzeko saiatuko gara».

Hiru maila ezberdinek jokatzen dute 22 tantora: kadeteak, jubenilak eta nagusiak, hain zuzen. Gehienez ere 66 tanto lor ditzakete, hau da; hiru mailako partida guztiak irabaziz gero.

Berria Txapelketan kanporaketa sistema erabiliko dute. Hortaz, Leitzako Aurrera taldeak txapelketan jarraituko du, Usurbilen aurka 48-35 irabazi zuelako. Bigarren kanporaketan Belate nafar pilota eskolaren aurka lehiatuko da, otsailaren 24an.

Beste txapelketak

Pilotariak beste txapelketetan ere dabilta: Berrian, Euskadiko Klub Txapelketan eta Udaberriko Txapelketan. Zazpi-Iturrikoek igandean Euskadiko Txapelketako norgehiagoka batzuk izango dituzte, eta Aurrera-Saiazekoen etzi, 17:00etatik aurrera Beotibar pilotalekuan. Jubenila eta se-



Zazpi-Iturrikoak, I. Berria Txapelketako txapeldunak. I. OTEGI/ARGAZKI PRESS

niorra banaka eta nagusi mailako binakako bat izango dira. Lehengo astekoetan banaka jokatu zuten jubenilak eta 22 urte azpikoak galdutuz egin bazuten ere, 22 urte azpikoekin binakakoa eta senior mailako biak irabazi egin zituzten.

Udaberriko Txapelketari da-

gokionez, bihar Aurrera-Saiazekoen partida bat izango da Ibarran 20.00etan, Altzakoen aurka. Partida binakako nagusien artekoa izango da.

Bestalde, torneo pribatuetan ere ari dira pilotariak, besteak beste, Errekakoan, Lezamakoan eta Laudiokoan.

ERREMONTEA ▶

Galarretako gaurko partidetan eskualdekoak

Herenegun Altuna I.a amezketarrak San Miguelekin batera irabazi egin zuten

ERREDAKZIOA

Galarretan 16:00etatik aurrera erremonteko lau partida izango dira, eta bigarrenean Ezkurra-Iriarte bikotea Zeberio Ila-Urrutiaren aurka ariko dira. Hirugarrenean Altuna II-Ion ariko dira jokoan Bitoria-Etxeberria III.aren aurka. Bukatzeko, laugarren partidatan 30era jokatu dute Uterga-Auzmendik Agirresarobe-Aizpururen kontra.

Herenegun jokatu dute partidaren artean Altuna I.ak eta San Miguelek jokatu zuten, 40-38 Juaristi-Eizagirre-aren aurka irabaziz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ALBIZTUR ▶ GIZARTEA



Eskulanetako ikastaroan ikasten eta aldi berean gozaten

N. Urbizu ▶ Itziar Lazkano tolosarra Albizturko Kultur Etxean eskulanetako ikastaroak ari da ematen. Aurtengoan 4 lagun animatu dira ikastaroan parte hartzera, eta gauza bitxi asko egiteko aukera izango dute: margolanak, harearekin egindako koadroak, etxea apaintzeko objektuak, figurak margotu... Astearen behin elkartzen

dira Kultur Etxean, bi orduz. Aste honetan bigarren saioa izan dute, eta martxoaren 27ra arte iraungo du. Haien esanetan, «ikasten ari gara, eta horrez gain, besteekin hitz egiteko eta egoteko ere baldin du». Batek daki zenbat gauza ikasiko dituzten laurak, bertan egindakoak etxeko txokoren bat edertzeko. ESTI EZEIZA

IZASKUN AZURMENDI ▶ EKUADORREN MISIOLARI

MADDI SOROA

Izaskun Azurmendik (Ibarra, 1984) 15 hilabete pasatu ditu Ekuadorreko kostako zatiko Baba hirian Euskal Herriara etorri gabe. Bilboko apaiza batekin eta bertako beste neska batekin lanean ari da bertako garapenaren inguruan. Obra Publikoetako Ingenieritza ikasketak amaitu baditu ere une honetan Baban du burua.

Zer dela eta joan zinen Ekuadorrerara?

Ibarrako Jose Mari Garmendia apaiza nire amaren laguna da eta harengana joan nintzen uda batean bi hilabete pasatzen. Oso esperientzia ona pasatu nuen baina gero, buruan bueltak nuen gaia eta hango jende gaztea ere ezagutu nuen eta beraien esperientziaren berri izan nuen niri ere gogo jarri zitzaidan hara joateko. Etxekoek beti babestu dute nire erabakia eta laguntza asko eman didate. Hori eskertzekoa da horrelako erabaki baten aurrean.

15 hilabete pasatu dituzu Ekuadorreko Baban, zer moduzkoa izan da etorrera?

Gogo handia nuen etortzeko, etxeokak eta ilobak ikusi, lagunekin egon eta abar. Bestetik, ordea, deseroso sentitu naiz hemengo sistemarekin, kasu honetan Eguberriekin. Apur bat zaila egin zait zentratu eta kontsumoari aurre egitea. Bestalde, gauza batzuk atentzioa deitu didate, esaterako, karreterek, dendek, tabernetak eta eta soinuek eta baita hotzak ere, han beti beroa egiten baitu. Hala ere, gustura nago, azken batean hemengoa bainaiz.

Zer utzi duzu Baban?

Lagun eta proiektu asko utzi ditut han eta baita leku bat ere. Azken batean, 15 hilabete han egonda, leku bat egiten duzu ezagutzen zaituen jende artean. Hemen inoiz biziko ez nukena bizi dut eta gauza asko ikasi ditut. Hasiera batean urte baterako joan nintzen baina proiektu asko amaitu gabe utzi ditugu eta epea luzatzeko eskakizuna onartu digute. Hemen igaroko ditudan egunak aprobetxatu nahi ditut baina indarberrituta eta gogo handiarekin bueltatuko naiz hila- ren 22an.

Indarberrituta diozu, esperientzi azalla izan al da?

Han egon naizen denboran ez naiz gaizki egon baina bai oso nekatuta. Oso erritmo gogorra daramagu eta azken egunetan ia ez nuen lorik ere egiten gauza batzuk lotuta utzi nahi bainintuen. Bestalde, gauza asko bota ditut faltan, etxeokak, lagunak eta abar. Azken batean, lagunak dituzu bertan baina era berean bakarrik zaude. Hala

«Oso gauza gutxirekin zoriontsu izan zaitezkeela konturatu naiz»

Hilaren 22an beste urte baterako Ekuadorrerara bueltatuko bada ere, ibartarrak oso argi du bere bizia Euskal Herrian dagoela



HITZA

ere, momentu onak eta txarrak alderatuko banitu, onekin geratuko nintzateke, dudarik gabe.

Zein proiektu burutu dituzue?

Proiektua bakarra izan da baina fase ezberdinak ditu. Gure helburu nagusia bertako egoera hobetzea da aspektu guztietan. Arloka lan ezberdinak egin ditugu sistema bera erabiliaz, boluntarioki jendeari gauza ezberdinak egiten erakustea, hain zuzen ere, modu horretan beraiek komunitatearen egoera hobetu ahal izateko. Hezkuntza arloan esaterako, irakasle izateko prestatu dugu komunitatea eta haurrak eskoletara joan behar dutenaren kezka sortu dugu. Osasunaren kasuan, botika askorik ez dute-nez medikuntza naturala erabiltzen irakatsi diegu. Etxebizitzetxei dagokionez, hormigoizko blokeak egiten ikasi dute. Beste hainbat gai ere jorratu ditugu garapenaren inguruan.

EUSKAL HERRIAN

«Hasieran deseroso sentitu naiz Gabonetako kontsumoarekin eta hemengo sistemarekin»

PROIEKTUAK

«Formakuntzaz baliatu gara beraien komunitateko egoera hobetu eta garapena lortzeko»

EZBERDINTASUNAK

«Guk soberan duguna ematen dugu baina haiek ez daukatena ere ematen dute, oso eskuzabalak dira»

Baban zein arazo nagusirekin egin duzu topo?

Osasuna eta hezkuntzari dagokionez, suposatzen da hauek publikoak direla baina errealitatean hori ez da betetzen. Garraioa ere arazo larria da, autobusa zentrorra bakarrik iristen baita baina gero ez da komunitateetara iristen. Ondorioz, bertakoek kilometro pila egin behar izaten dute egunero bizitzan batetik bestera mugitzeko. Edateko ur eta elektrizitate falta ere arazo dira.

Ekuador eta Euskal Herria zertan dira ezberdinak?

Dena da ezberdina, baina deigarriena agian, pertsonen arteko harremanak dira. Hango familiak oso desegituratuta daude, hango gizartea oso matxista baita eta gizonezko bakoitzak emakume bat baino gehiago izan ditzake. Bestalde armen gaia dago, han armak edukitzea legala baita eta horrek asko harritu ninduen.

Ekuadorren izan zaren garaiari zer ikasi duzu?

Oso gauza gutxirekin bizitzea posible dela eta zoriontsu izan zaitezkeela konturatu naiz. Azken batean, gure behar hipotetikoak, bada horixe, hipotetikoak direla. Benetako beharrak oso gutxi dira eta guk horiek asetuta ditugu. Beste pertsona bati eman diezaiok ezun maitasunaz ere asko ikasi dut. Haiek oso ondo hartu gaituzte gu eta beraien alaba izango bagina haiek ez daukatena ere ematen dute, oso eskuzabalak dira. Bestalde, antolatzearen garrantziak ere ohartu naiz; antolakuntzarekin gauza asko hobetu baitaitezke.

ARESO ▶ AZPIEGITURAK

INKESTA ▶ Lanak eragozpen handiak eragin al dizkizu?

TERESA TELLETXEA
OTSON-TXIKI ETXEOA



«Batzutan kotxea aparteago utzi behar izaten dugu, baina ez dugu aparteko molestiarik izan».

KARMEN GARMENDIA
UGALDENEA ETXEOA



«Batzutan beste bide batetik ibiltzen gara. Gero hobekiago egongo garenez, pazientzia pixka bat behar da».

JOSE ETXARRI
GARROA ETXEOA



«Dena txikituta dago eta hori obratan normala da. Gainera segituan amaituko dutela dirudi».

JOSETXO GOIKOETXEA
USTAKIÑEÑA ETXEOA



«Obrak nahitaezkoak dira, eta bere ondorioak onartu egin behar ditugula uste dut».

JOSE ONSALO
SEMEROA ETXEOA



«Obra izanez gero bistan dago zerbait behar dela. Gainera ordu batzutan geldirik egoten dira».

JOSEFA MUGERZA
ALKOZ ETXEOA



«Ez dugu esperoan egon beharrik izandua. Beti pasoa uzten dute, beste bideren bat irekitzen baitute. Bide bat itxi orduko beste bat irekitzen dute. Eta dagoeneko jarri gara obraren soinura».

XABIER NIETO
AHUNTZENA BORDAKOA



«Obrak egiten direnean betikoa da. Beti gertatzen da, kotxearekin ibiltzeko arazoak izaten dira. Gu base-riari bi gara eta ez digu eragin. Kotxearekin pasatzera koan pazientzia behar da».

Herriko obrak hitzartutako epean amaituko dituzte

Elutseder industrialdeko lanak, berriz, ez dira oraindik hasi, Udala Nafarroako Gobernuko baimen baten zain baitago



Autoak eta makinak, denak batera. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Aresoko bizilagunek bi hilabete baino gehiago daramatzate herriaren eguneroko eraldaketan lekuko izaten, Peruneko zubitik hasi eta Oilleneoraino doan zatia lanez josirik baitago. Konponketak azaroan hasi zituzten eta Alfonso Araujok, udaletxeko idazkariak azaldu duen bezala, «epeak ongi doaz. Enpresaren aldetik zuhur jokatzan ari dira, eta Gabonetako oporrak kenduta, egunero ari dira lanean».

Obrak lau hilabete t'erdiko iraupena izango zutela hitzartu zuen Aresoko Udalak Pagoze-lay enpresarekin, baina baliteke pixka bat atzeratzea, izan ere, eta Alfonso Araujok adierazi duen bezala, «askotan ezinezkoa da obra bat hasi baino lehen alde zuretik dena antolatzea». Horregatik, behin

ELUTSEDER ▶

LURSAILAK

P-1A. Sena enpresari saldua.
P-1B. Sukia, obraren ordainez.
P-2A. Udala.
P-2B. Udala.
P-3. Sukia.
P-D1. Sukia.

METRO ERAIKIGARRIA

Metroa. 200 euro inguru (31.000 pezeta).

IRABAZIAK

Senari salmenta. 1.575.000 euro (261.450.000 pezeta).
Diru laguntza. 560.240.963 euro (93.000.000 pezeta).
Udalarentzat lurrak. P2A-2B.

KOSTUA

Proiektua. 301.204.819 euro (50.000.000 pezeta).

obrak hasi eta gero, elektrizitate eta telefonia sareak, eta uren hornikuntza hobetzeaz gain, bidenabarrean gasa bideratzekoak dira. «Azkenean atzerapenik badago, ez litzateke enpresa eraikitzailearen arazoa izango, udalarena baizik». Konponketa lanak amaitu ondoren, zolua ere aldatu egingen dute.

Elutseder

Honetaz gain, Elutseder industrialdeko obrak izanen dira Areson egingen dituzten hurrengoak. Hastear dauden arren, Udala Nafarroko Gobernuko baimen baten zain dago, eta Alfonso Araujo idazkariak esan duen bezala, «baimen hori iritsi ezean, ezin gara obrarekin hasi». Behin lanak hasi eta gero, 20 hilabetetako iraupena izanen dute.

TOLOSA ▶

‘Egunkaria auzia’ berriro irekitzeko eskatu du PPK

ERREDAKZIOA

Mariano Raxoi PPko presidentek bost proposamen egingo ditu Espainiako Kongresuan, «ETA garaitzeko» asmoz. Haietako bat, Gobernuak Fiskaltzari agindu diezaioala *Egunkaria*-aren kontrako auzian ahozko epaiketa hastea eta «zigorrik handienak» eskatzea. Auzi horretan inputatuta dago Martxeló Otamendi tolosarra.

PPren esanetan, ekimenen «garrantzitsuenak» EHAK legez kanpo uzteko prozesua hastea da. «Izen hori erabiliz, Batasuna hurrengo hauteskundeetan izatea saihestu behar da», esan du Raxoik. Beste ekimenak dira: Espainiako Gobernuak Estrasburgoko Auzitegiari esan diezaioala Batasuna legez kanpoko izaten segitzeko «arrazoiak» ez direla aldatu; Fiskaltzari agindu diezaioala Batasunaren ekimen «denak» jazar ditzala, alderdi horrek «normal» funtziona ez dezan; eta Espainiako Kongresuak atzera bota dezala 2005eko maiatzean onartutako ebazpena (Kongresuak Espainiako Gobernuari baimena eman zion indarkeriarik gabeko egoeran ETArekin hitz egiteko).

LARRAUL ▶

Ikastaro ugari antolatu dituzte herrian

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak ikastaro ugari antolatu ditu Larraulan. Alde batetik meditazio ikastaroa jarriko du martxan, asteazkenean, 19:45ean, udaletxean.

Bestalde, 20 orduko hainbat ikastaro antolatu ditu: Photoshop, yoga, sukaldaritza eta eskulanak. Horrez gain, ipuin kontalaritzako 6 orduko ikastaroa ere antolatu dute. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Aiztondoko dulegoetara deitu ahaliko du, 943 69 39 30 zenbakira.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Otsailaren 3an podologoaren bisita izango da Berastegiko Gaztainondo elkartearen. Interesatuak izena eman dezakete Gaztainondo bertan edota honako telefono zenbakian: 943 68 32 02.

Berrobi. Eskularen ikastaroa astelehenetan izango da 10:00etatik 12:00etara, otsailaren 5ean hasi eta abenduaren 10a arte. Ikastaroaren prezioa, berriz, 103 eurokoa izango da. Izen-ematea 943 68 32 94 telefono zenbakian egin behar da hilaren 23a baino lehen.

Villabona. Aizkardi mendi elkarteak Artzamendira (Lapurdi) antolatu du irteera igande honetarako. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonon (Joxan) eman daiteke.

Tolosa. 13:00etik aurrera, Zabalarreta parkean, Koldobika Jauregi alkizarraren *Kantu isila* erakusketaren eskultura jarriko dute behin-betiko.

ZINEMA

Tolosa. *El beso mortal* filma gaur ikusgai Leidor aretoan, 21:45etik aurrera.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian otsailaren 24ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 943 67 06 48.
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112. (Leitza eta Aresoko biztanleentzat).

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Irauli uhinak.
21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Urte oparoa animaliei

BERASTEGI ▶ Urtero moduan San Anton Eguna ospatu zuten atzokoan Berastegiko ermitan, herriko animaliek urte ona igaro ahal izateko



Haurbo bat Poni izeneko poneyari jaten eman nahian eta izuari aurre eginez. MADDI SOROA


MADDI SOROA

Egipziarra eta 251. urtean jaioa omen zen San Antonio monjea. Gazte zela, zituendu ondasun guztiak oparitu eta ermitatu bilakatu zen. 105 urte arte bizi omen zen eta santu bezala oharatzen da. Besteak beste, harakinen, lurperatzaileen eta animalien parrotizat hartzen dute eta urtarriaren 17an ospatzen da haren aldeko eguna.

Animalien patroli izanik, urterik urte, bada Berastegin San Anton gogorarazten duen ohi-turarik. Usadioak dioenaren arabera, animaliak bedeinkapena jaso ondoren, urte ona jasotzen omen du. Hala egin zuten atzokoan berastegiarrek. Oilarra, zakurrak, ahuntza eta poneya hartu eta San Anton ermitara txangoa egin zuten beren animaliei urte ona opatzeko.

Urte batzuetan ohitura hau galtzar egon bazen ere, egun herritar gazteenak dira usadioa mantenduz animaliak bedeinkatzaera eramaten dituztenak. Ondoren, heldu nahiz gazte, hamaiketako egiten dute San Antoni eskertzeko modu gisa.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Unax Lizarraga Calvo
 (Zizurkil). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu pila 1 familiarren partetik.

URTE ASKOAN
 Antonio Lasa eta Maria Argoia. Gaur 71 urte Leaburu ezkondu zirela, ondoren Telleri baserrian bizi izan ziren. Familiarren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...